

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

AMURRIKO UDALA

Behin betiko onestea Amurrio Antzokiko zerbitzua emateagatiko tasa arautzen duen Udal 7. ordenantza fiskalaren 23. eranskinaren aldaketa

Udalak 2026ko ekainaren 25ean egindako osoko bilkuran hartutako erabakiaren aurkako erreklamazioak aurkezteko epea igaro da (erabaki hori 2026ko uztailaren 6ko ALHAOn argitaratu zen, 76. zenbakian, eta Amurrio Antzokiaren zerbitzua emateagatiko tasa arautzen duen udal 7. ordenantza fiskalaren (2026/796 espediente) 23. eranskinaren aldaketa behin-behinean onartzeari buruzkoa da), eta ez da inolako erreklamaziorik aurkeztu, Toki Ogasunak Arautzen dituen Legearen testuategina onartzen duen martxoaren 5eko 2/2004 Legegintzako Errege Dekretuaren 17.3 artikuluan ezarritakoaren arabera. Horrenbestez, erabaki hori behin betiko bihurtu da, eta argitara ematen da apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 70.2 artikuluan eta aipatutako 2/2004 Legegintzako Errege Dekretuaren 17.4 artikuluan aurreikusitako ondorioetarako. Hona hemen hitzez hitz:

AMURRIKO ANTZOKIKO ZERBITZUEN PRESTAZIOAREN TASA ARAUTZEN DUEN 7. ORDENANTZA FISKALAREN 23 ERANSKINA

I. LEGE OINARRIA

1. artikulua

Amurrioko Udalak, Arabako Lurralde Historikoko Tokiko Ogasunen Foru Arau Erregulazilearen 20. eta 25. artikuluetan, Konstituzio Auzitegiaren abenduaren 14ko 185/1995 Epaian, uztailaren 13ko 25/1998 Legean eta Toki ogasunen lege arautzailearen testuategina onartzen duen martxoaren 5eko 2/2004 Legegintza Errege Dekretuaren 20. artikuluan xedatutakoak betez, Amurrio Antzokian zerbitzuak emateagatiko tasak ezartzen eta eskatzen ditu.

II. ZERGA EGITATEA

2. artikulua

Ordenantza hau Amurrioko udalerrri osoan aplikatuko da.

3. artikulua

Zerga egitatea ordaindu beharreko kuotari buruzko artikuluan xedatuta dauden eta Amurrio Antzokian kultura eta gizarte jarduerak garatzeko diren zerbitzuak emateak osatzen du.

III. SUBJEKTU PASIBOA

4. artikulua. Subjektu pasiboa

Amurrio Antzokian zerbitzuak emateagatiko tasa ordaindu beharko dute lurralde historikoko Zergen Foru Arau Orokorraren 35. artikuluko 3. apartatuan jasota dauden eta zerbitzuak edo jarduerak eskatzen dituzten edo horien onuradun edo eraginpeko diren pertsona fisikoek edo juridikoek eta erakundeek.

IV. SALBUESPENAK, MURRIZKETAK ETA HOBARIAK

5. artikulua. Ordainketen eta deskontuen politika

5.1 Zikloen, denboraldien edo programazio moten arabera ordainketak egin ahal izango dira, eta horiekin, ikuskizunetarako banakako prezioen baturaren % 10 eta % 50 arteko deskontua lortuko da.

5.2 Ikastetxeekin hitzartutako ikuskizunetarako banakako sarrera berezien prezioa 0,00 eta 6,00 euro artekoa izango da.

5.3 GazteTxartela. GazteTxartela duten gazteek 2,00 euroko deskontua izango dute zuzeneko ikuskizunetarako sarreretan. Halaber, urteko zine saio guztietarako 4,50 euroko prezio murriztua izango dute, Amurrio Antzokiak programatutako edozein saiotarako.

Deskontu hori artikuluko honetako gainerako hobariekin ezin izango da metatu.

5.4 Bazkideen politika.

Amurrioko Antzokiko bazkide txartela dutenek honako abantailak izango dituzte:

- Amurrio Antzokiko ikuskizunetako sarrera indibidualetan deskontuak izango dituzte.
- Bazkideen txartelak izendunak izango dira eta Amurrio Antzokiak programatutako ikuskizunetarako sarreretan deskontuak jasoko dituzte prezioen taularen arabera. Bazkide bakoitzak deskontudun sarrera bat erosi ahal izango du ikuskizun bakoitzerako.

PREZIOEN TAULA / IKUSKIZUNAREN PREZIOA	BAZKIDEENTZAKO PREZIOA
4,99 euro gehienez	euro 1,00eko deskontua ikuskizunaren prezioaren gainean
5,00 eta 15,00 euro bitartean	2,00 euroko deskontua ikuskizunaren prezioaren gainean
15,00 eurotik gorako zenbatekoak	3,00 euroko deskontua ikuskizunaren prezioaren gainean

• Sarrerak erosteko lehentasuna. Bazkideek sarrerak erosi ahal izateko egun jakin batzuk egongo dira, eta bazkide bakoitzak sarrera bat erosi ahal izango du dagokion deskontuarekin.

• Urteko zine saio guztietarako 4,50 euroko prezio murriztua izango dute, Amurrio Antzokiak programatutako edozein saiotarako.

• Helbide elektronikoan Amurrioko Antzokiko programazioari buruzko informazioa jasotzea.

5.5 Alokairuen politika.

Alokairuen apartatuan adierazitako kuoten % 30era arte murriztu ahal izango da entitate berak urtebetean modu esanguratsuan eta jarraituan instalazioak erabiltzeko eskaria egiten baldin badu (hau da, urtebetean jarraituak ez diren 4 egun baino gehiago).

5.6 Amurrioko Udalak Amurrioko Antzokiko instalazioak doan erabiltzeko baimena eman ahal izango du eskatzailearen kultura, gizarte, kirol edo ongintza interesa kontuan hartuz, eta, bereziki, eskatzaileak helbide soziala Amurrioren duten irabazi asmorik gabeko kultura, gizarte, kirol edo ongintza elkarteak direnean.

5.7 Publizitate iragarkiak proiektatzeari dagokionez, eskatzaileak Amurrioko edo Aiaraldeko kultura taldeak edo elkarteak direnean eta ohiko moduan udalerrin horretan kultura jarduerak egiten dituztenean, iragarkiak doan proiektatzeko zerbitzuak doan eman ahal izango dira, betiere, jarduerok lehentasunezko kultura interesa dutenean aurretiaz udalak ebazpena eman ondoren edo talde edo erakunde eskatzaileek Amurrioko Udalarekin sinatutako eta indarreko hitzarmena dutenean, zeinak berariaz jasota izan beharko duen publizitate iragarkiak proiektatzeko aukera.

5.8 Artikuluko honetan jasotako tasak 2026-2027 denboraldirako baino ez dira aplikatuko. Hurrengo denboraldirako, I. eranskinean jasotako tasak aplikatuko dira.

V. KUOTA

6. artikulua

Hauek izango dira zerga kuotak:

6.1 AMURRIOKO ANTZOKIKO ZERBITZUAK

Bazkide txartela, banakakoa, urria-iraila.	12,00 euro
2026 urte osoko bazkideentzat, salbuespenezko tarifa murriztua 2027ko urtariletik irailera bazkide txartelean	8,00 euro

ZINE KOMERTZIALA	
Sarrera orokorraren prezioa	6,50 euro
Ikusleen eguna (astelehena)	5,00 euro
Umeentzako saioak	4,50 euro
Sarrera prezioa era guztietako bazkideentzat	4,50 euro
GAINONTZEKO ZINE MOTAK	
Zine kluba, umeentzako goizekoak eta gizarte eta kultura helburuko saio bereziak (umeak, adinekoak, gazteak edota beste taldeentzat)	0,00-5,00 euro bitartean

ZUZENeko IKUSKIZUNAK	
Sarreraren prezioa	1,00 - 35,00 euro
Ikuskizun amateurak edo hitzarmenen arabera hirugarrenek antolatutakoak	0,00 - 25,00 euro

Udalak gehienez ere 10 gonbidapen gorde ahal izango ditu antzerki edo ikuskizun konpainientzat.

Gainontzeko zine moten eta Zuzeneko Ikuskizunen sarreraren kuota saioaren edo ikuskizunaren nolakotasunaren arabera zehaztuko da, administrazio ebazpenaren bidez erabakitako irizpideen arabera:

Zuzeneko ikuskizunen prezioak honako parametroen arabera aldatuko dira:

- a) Ikuskizunaren kaxeta, BEZa barne.
- b) Zein hizkuntzatan egiten den.

Ikuskizuna euskaraz eta nagusientzako baldin bada, sarrera-prezioa % 10 eta % 20 artean murriztuko da.

c) Zein publikorentzat den. Ikuskizuna gazteei edo adinekoei zuzenduta badago, sarrera-prezioa % 10 eta % 20 artean murriztu ahal izango da.

d) Ikuskizunarekiko sortu daitezkeen itxaropenak edo dimentsio komertziala.

Bai publizitatea dela, bai aktore edo abeslari oso ezagunek parte hartzen dutelako, bai jarraitzaile fenomeno dagoelako, antzerki obrarekiko itxaropen asko sortzen badira, prezioa % 10 eta % 20 artean gehitu ahal izango da.

Umeentzako ikuskizunak:

800,00 eurora arteko ikuskizunak: 3,50 euro.

3.000,00 eurora arteko ikuskizunak: 5,00 eta 6,00 euro artean.

4.000,00 eurora arteko ikuskizunak: 6,00 eta 7,50 euro artean.

5.000,00 eurora arteko ikuskizunak: 8,50 eta 10,00 euro artean.

5.000,00 eurotik gorako ikuskizuna: 12,00 euro.

Antzerki profesionala:

3.000,00 eurora arteko ikuskizunak: 10,00 euro.

4.000,00 eurora arteko ikuskizunak: 12,00 euro.

6.000,00 eurora arteko ikuskizunak: 15,00 euro.

8.000,00 eurora arteko ikuskizunak: 18,00 euro.

10.000,00 eurora arteko ikuskizunak: 22,00 eta 24,00 euro artean.

10.000,00 eurotik gorako ikuskizuna: 26,00 euro.

Antzerki amateurra: 3,50 eta 7,50 euro artean.**Musika:**

2.000,00 eurora arteko kontzertuak: 7,50 euro.

4.000,00 eurora arteko kontzertuak: 12,00 euro.

6.000,00 eurora arteko kontzertuak: 15,00 eta 17,00 euro artean.

10.000,00 eurora arteko kontzertuak: 18,00 eta 22,00 euro artean.

10.000,00 eurotik gorako kontzertua: 24,00 euro.

Kontzertu amateurak: 3,50 eta 7,50 euro artean.**Dantza:****Dantza profesionala.**

2.000,00 eurora arteko ikuskizunak: 7,50 euro.

4.000,00 eurora arteko ikuskizunak: 10,00 euro.

6.000,00 eurora arteko ikuskizunak: 12,00 euro.

8.000,00 eurora arteko ikuskizunak: 15,00 euro.

10.000,00 eurora arteko ikuskizunak: 18,00 eta 22,00 euro artean.

10.000,00 eurotik gorako ikuskizuna: 24,00 euro.

Dantza amateurra: 3,50 eta 7,50 euro artean.

AMURRIKO ANTZOKIKO ARETOA ALOKATZEA	
Hitzaldi, mintegi eta jardura kulturaletarako, muntaietarako, bileretarako, bideo-klipen grabazioetarako, ikuskizun entseguetarako, zine edo bideo proiektzioko saioetarako alokairua, doako sarrerarekin (Prezio finkoa 4 ordura arte) (Prezio finkoa 4 ordutik aurrera eta gehienez ere 8 ordura arte)	75,00 euro 125,00 euro
Hitzaldi, mintegi eta jardura kulturaletarako, zine edo bideo proiektzioko saioetarako edo muntaietarako alokairua, sarrera doan izan gabe. (Prezio finkoa 4 ordura arte) (Prezio finkoa 4 ordutik aurrera eta gehienez ere 8 ordura arte)	125,00 euro 180,00 euro
Aretoan soinu-tapen edo argiztapen ekipak behar izanez gero	300,00 euro/egun
Ordu osagarriak alokatzea	30,00 euro/ordu

Aretoa alokatzeak esan nahi du Amurrio Antzokiko areto publiko guztiak alokatzea (atondoa, aldagela, agertokia, aretoa eta zerbitzuak), eta barne egongo dira megafonia zerbitzua (gehienez ere 3 mikrofono), bideo proiektorea edo proiektore digitala, oinarritzko argiztapen zuria eta aretoaren garbiketa.

Gainera, alokairua eskatzen dutenek beren gain hartu beharko dute jardura garatzeko behar diren langileen kostua. Beraz, arreta teknikoak, txarteldegia, zine operadoreak, sarrera eta aretozain zerbitzuak eta, beharrezkoa bada, sarrera salmentako zerbitzurako langileak eta abarrek

eragindako orduko prezioaren kostua ordaindu beharko dio zuzenean zerbitzu hori eman behar duen enpresa esleipendunari. Antzerkia alokatzean, ezinbestekoa izango da laguntza teknikoa eskainiko duen pertsona bat egotea, denak behar bezala funtziona dezan.

Udalak ebazpena eman beharko du Amurrio Antzokiko instalazioak alokatzeko baimena emateko, eta baimen hori ukatu ahal izango da jarduera aretoko helburuekiko egokia ez baldin bada. Horretarako, gutxienez 15 egun aurretik idatzizko eskaria aurkeztu beharko da. Instalazioak alokatzeko eskariak ere idatziz ezeztatuko dira gutxienez 5 eguneko aurrerapenarekin.

6.2 UDALEKO BESTE ARLOEK AMURRIOKO ANTZOKIAN JARDUERAK ANTOLATZEA

Udal sailek antzokia erabili nahi dutenean jarduera bat eskaintzeko, ekitaldia antolatzeko ardura duen sailak, 15 egun lehenago eskatzeaz gain, bere gain hartu beharko du jarduera garatzeko behar diren langileen kostua. Beraz, laguntza teknikoaren, leihatilako edo zine operadorearen eta garbiketaren orduko prezioak ordaindu beharko dizkio zuzenean zerbitzuaren enpresa adjudikaziodunari.

6.3 PUBLIZITATEKO IRAGARKIAK PROIEKTATZEKO TASA

AMURRIO ANTZOKIAN PUBLIZITATE IRAGARKIAK PROIEKTATZEAREN TASA ORDAINDU BEHARKO DUTE PERTSONEK EDO ENPRESEK; IRAGARKIOK EZ DUTE 90 SEGUNDO BAINO GEHIAGO IRAUNGO ETA KONTRATATUTAKO SAIO GUZTIAN EMANGO DIRA.	
KONTRATATUTAKO EPEA	
Iragarki 1	60,00 euro
Asteburu batean iragartzea, hau da, larunbat, igande eta astelehenean programatutako saio guztietan	125,00 euro
Iragarkiak hilabete bateko saio guztietan iragartzea (gutxienez 8 iragarki)	350,00 euro

6.4 DENBORALDIKOTASAK

Artikulu honetan jasotako tasak 2026-2027 denboraldirako baino ez dira aplikatuko. Hurrengo denboraldietarako, l. eranskinean jasotako tasak aplikatuko dira.

VI. SORTZAPENA ETA ZERGALDIA

7. artikulua

Zerbitzua edo jarduera egiten denean sortuko da tasa.

ORDAINTZEKO BEHARRA

8. artikulua

Ikusleek ordaintzeko beharra izango dute, izan ere, udalak, elkarteak edo legez eraturako kolektiboak programatutako jarduerarako sarrera eskuratzean leku bat gordeko da.

9. artikulua

Erakunde antolatzaileek eta/edo sustatzaileek ordaintzeko betebeharra izango dute, izan ere, antzezlanak egiteko, etorkizuneko ikuskizunetarako entseguak egiteko, kolektiboak eta elkarteak biltzeko, konferentziak eta proiektzioak egiteko eta abarrerako instalazioak erabiliko dituzte.

Ez dute ordainketarik egin beharko zuzenean Amurrioko Udalak babestutako edo diruz lagundutako jarduerak eta honako hauek:

9.a. Hirugarren pertsonen onurarako edo norbere onurarako egiten diren jarduketak, erakunde interesdunak hala eskatuta. Horretarako, erakunde sustatzaileak eskarian adierazi beharko du sarreraren prezioa eta diru bilketaren pertsona edo erakunde onuraduna nor den. Lagapena ongintzazkoa izango da diru bilketaren erakunde edo elkarte onuraduna elkarte bat baldin bada eta bere estatutuetan irabazi asmorik gabeko ongintzazko xedeak, helburu humanitarioak, gizartekoak, kulturalak edo kirolekoak jasota baldin baditu.

9.b. Udalerriko ikastetxeak antolatutako denboraldi baterako jarduketa, betiere, herritar guztiei zuzenduta badago eta era berean, irabazteko xederik gabeko ongintzazko xedeak, helburu humanitarioak, gizartekoak, kulturalak edo kirolekoak baldin baditu.

9.c. Beharrianengatik egiten diren erabilerak, larrialdi egoerei edo hondamendiei aurre egiteko eta populazio zibilari laguntzeko arrazoi humanitarioak tarteko.

9.a eta 9.b artikuluetako jarduketak eta jarduerak aurretiaz onetsiko dira edo udalaren ebazpen baten bidez ordaintzeko betebeharrari atxiki gabe daudela adieraziko da.

LIKIDAZIOA ETA ORDAINKETA

10. artikulua

Amurrioko Udalak kontzeptu bakoitzari dagokion likidazioa egingo du eta erabili aurretik dagokion zenbatekoa ordaindu beharko da.

TASEN KUDEAKETA

11. artikulua

Ordenantza honek araututako tasen likidazio, dirubilketa eta ikuskatzearen gaineko guztian, eta zergen arau hausteen kalifikazioari eta dagozkien zehapenak zehaztearen gaineko guztian, Arabako Lurralde Historikoaren Zergei buruzko Foru Arau Orokorrean xedatutakoa aplikatuko da.

I. ERANSKINA

TASAREN KONTZEPTUA	2027- 2028	2028- 2029	2029- 2030	2030- 2031	2031- 2032	2032- 2033	2033- 2034	2034- 2035	2035- 2036	2036- 2037	2037- 2038	2038- 2039	2039- 2040	2040-2041 ETA HURRENGOAK
Lotutako txartela	12,5	13,5	14,5	15,5	16,5	17,5	18,5	19,5	20,5	21,5	23,0	24,5	26,0	27,5
Sarrera orokorraren prezioa	7,0	7,5	8,0	8,5	9,0	9,5	10,0	10,5	11,0	11,5	12,0	12,5	13,5	14,5
Zinea ikusleen eguna (astelehena)	5,5	6,0	6,5	7,0	7,5	8,0	8,5	9,0	9,5	10,0	10,5	11,0	11,5	12,0
Umeentzako saioak	5,0	5,5	6,0	6,5	7,0	7,5	8,0	8,5	9,0	9,5	10,0	10,5	11,0	11,5
Zine sarrera-prezioa bazkide guztientzat	5,0	5,5	6,0	6,5	7,0	7,5	8,0	8,5	9,0	9,5	10,0	10,5	11,0	11,5
Zine Gazte Txartelaz	5,0	5,5	6,0	6,5	7,0	7,5	8,0	8,5	9,0	9,5	10,0	10,5	11,0	11,5
800,00 eurora arteko haurrentzako ikuskizunen sarrera-prezioa	3,5	3,5	4,0	4,0	4,5	5,0	5,5	6,0	6,5	7,0	7,5	8,0	8,5	9,0
3.000,00 eurora arteko haurrentzako ikuskizunen sarrera-prezioa (gutxieneko tasa)*	5,5	6,0	6,5	7,0	7,5	8,0	8,5	9,0	9,5	10,0	10,5	11,0	11,5	12,0
3.000,00 eurora arteko haurrentzako ikuskizunen sarrera-prezioa (gehieneko tasa)*	6,5	7,0	7,5	8,0	8,5	9,0	9,5	10,0	10,5	11,0	11,5	12,0	12,5	13,5
4.000,00 eurora arteko haurrentzako ikuskizunen sarrera-prezioa (gutxieneko tasa)*	6,5	7,0	7,5	8,0	8,5	9,0	9,5	10,0	10,5	11,0	11,5	12,0	12,5	13,5
4.000,00 eurora arteko haurrentzako ikuskizunen sarrera-prezioa (gehieneko tasa)*	8,0	8,5	9,0	9,5	10,0	10,5	11,0	11,5	12,0	12,5	13,5	14,5	15,5	16,5
5.000,00 eurora arteko haurrentzako ikuskizunen sarrera-prezioa (gutxieneko tasa)*	9,0	9,5	10,0	10,5	11,0	11,5	12,0	12,5	13,5	14,5	15,5	16,5	17,5	18,5
5.000,00 eurora arteko haurrentzako ikuskizunen sarrera-prezioa (gehieneko tasa)*	10,5	11,0	11,5	12,0	12,5	13,5	14,5	15,5	16,5	17,5	18,5	19,5	20,5	21,5
5.000,00 eurotik gorako haurrentzako ikuskizunen sarrera-prezioa	12,5	13,5	14,5	15,5	16,5	17,5	18,5	19,5	20,5	21,5	23,0	24,5	26,0	27,5
3.000,00 eurora arteko antzerki ikuskizunen sarrera-prezioa	10,5	11,0	11,5	12,0	12,5	13,5	14,5	15,5	16,5	17,5	18,5	19,5	20,5	21,5
4.000,00 eurora arteko antzerki ikuskizunen sarrera-prezioa	12,5	13,5	14,5	15,5	16,5	17,5	18,5	19,5	20,5	21,5	23,0	24,5	26,0	27,5
6.000,00 eurora arteko antzerki ikuskizunen sarrera-prezioa	16,0	17,0	18,0	19,0	20,0	21,0	22,5	24,0	25,5	27,0	28,5	30,0	32,0	34,0
8.000,00 eurora arteko antzerki ikuskizunen sarrera-prezioa	19,0	20,0	21,0	22,5	24,0	25,5	27,0	28,5	30,0	32,0	34,0	36,0	38,0	40,5
10.000,00 eurora arteko antzerki ikuskizunen sarrera-prezioa (gutxieneko tasa)*	23,5	25,0	26,5	28,0	29,5	31,5	33,5	35,5	37,5	40,0	42,5	45,0	47,5	50,5
10.000,00 eurora arteko antzerki ikuskizunen sarrera-prezioa (gehieneko tasa)*	25,5	27,0	28,5	30,0	32,0	34,0	36,0	38,0	40,5	43,0	45,5	48,0	51,0	54,0
10.000,00 eurotik gorako antzerki ikuskizunen sarrera-prezioa*	27,5	29,0	30,5	32,5	34,5	36,5	38,5	41,0	43,5	46,0	49,0	52,0	55,0	58,5
Ikuskizun amateurretarako sarrera-prezioa (gutxieneko tasa)*	3,5	3,5	4,0	4,0	4,5	5,0	5,5	6,0	6,5	7,0	7,5	8,0	8,5	9,0
Ikuskizun amateurretarako sarrera-prezioa (gehieneko tasa)*	8,0	8,5	9,0	9,5	10,0	10,5	11,0	11,5	12,0	12,5	13,5	14,5	15,5	16,5
2.000,00 euro arteko musika ikuskizunen sarrera-prezioa	8,0	8,5	9,0	9,5	10,0	10,5	11,0	11,5	12,0	12,5	13,5	14,5	15,5	16,5
4.000,00 euro arteko musika ikuskizunen sarrera-prezioa	12,5	13,5	14,5	15,5	16,5	17,5	18,5	19,5	20,5	21,5	23,0	24,5	26,0	27,5
6.000,00 euro arteko musika ikuskizunen sarrera-prezioa (gutxieneko tasa)*	16,0	17,0	18,0	19,0	20,0	21,0	22,5	24,0	25,5	27,0	28,5	30,0	32,0	34,0
6.000,00 euro arteko musika ikuskizunen sarrera-prezioa (gehieneko tasa)*	18,0	19,0	20,0	21,0	22,5	24,0	25,5	27,0	28,5	30,0	32,0	34,0	36,0	38,0
10.000,00 euro arteko musika ikuskizunen sarrera-prezioa (gutxieneko tasa)*	19,0	20,0	21,0	22,5	24,0	25,5	27,0	28,5	30,0	32,0	34,0	36,0	38,0	40,5
10.000,00 euro arteko musika ikuskizunen sarrera-prezioa (gehieneko tasa)*	23,5	25,0	26,5	28,0	29,5	31,5	33,5	35,5	37,5	40,0	42,5	45,0	47,5	50,5
10.000,00 eurotik gorako musika ikuskizunen sarrera-prezioa	25,5	27,0	28,5	30,0	32,0	34,0	36,0	38,0	40,5	43,0	45,5	48,0	51,0	54,0
2.000,00 eurora arteko dantza ikuskizunen sarrera-prezioa	8,0	8,5	9,0	9,5	10,0	10,5	11,0	11,5	12,0	12,5	13,5	14,5	15,5	16,5
4.000,00 eurora arteko dantza ikuskizunen sarrera-prezioa	10,5	11,0	11,5	12,0	12,5	13,5	14,5	15,5	16,5	17,5	18,5	19,5	20,5	21,5
6.000,00 eurora arteko dantza ikuskizunen sarrera-prezioa	12,5	13,5	14,5	15,5	16,5	17,5	18,5	19,5	20,5	21,5	23,0	24,5	26,0	27,5
8.000,00 eurora arteko dantza ikuskizunen sarrera-prezioa	16,0	17,0	18,0	19,0	20,0	21,0	22,5	24,0	25,5	27,0	28,5	30,0	32,0	34,0
10.000,00 eurora arteko dantza ikuskizunen sarrera-prezioa (gutxieneko tasa)*	19,0	20,0	21,0	22,5	24,0	25,5	27,0	28,5	30,0	32,0	34,0	36,0	38,0	40,5
10.000,00 eurora arteko dantza ikuskizunen sarrera-prezioa (gehieneko tasa)*	23,5	25,0	26,5	28,0	29,5	31,5	33,5	35,5	37,5	40,0	42,5	45,0	47,5	50,5
10.000,00 eurotik gorako dantza ikuskizunen sarrera-prezioa	25,5	27,0	28,5	30,0	32,0	34,0	36,0	38,0	40,5	43,0	45,5	48,0	51,0	54,0
Aretoaren 4 ordura arteko alokairua, sarrera doakoa denean	79,5	87,5	89,5	95,0	100,5	106,5	113,0	120,0	127,0	134,5	142,5	151,0	160,0	169,5
Aretoaren 8 ordura arteko alokairua, sarrera doakoa denean	132,5	140,5	149,0	158,0	167,5	177,5	188,0	199,5	211,5	224,0	237,5	252,0	267,0	283,0
Aretoaren 4 orduko alokairua, sarrera doakoa ez denean	132,5	140,5	149,0	158,0	167,5	177,5	188,0	199,5	211,5	224,0	237,5	252,0	267,0	283,0
Aretoaren 8 orduko alokairua, sarrera doakoa ez denean	191,0	202,5	214,5	227,5	241,0	255,5	271,0	287,5	305,0	323,5	343,0	363,5	385,5	408,5
Aretoko soinu-tatze eta argiztapen ekipoa alokatzea	318,0	337,0	357,0	378,5	401,0	425,0	450,5	477,5	506,0	536,5	568,5	602,5	638,5	677,0
Aretoa alokatzeagatik ordu gehigarriko	32,0	34,0	36,0	38,0	40,5	43,0	45,5	48,0	51,0	54,0	57,0	60,5	64,0	68,0
Iragarki bakarreko publizitatea	63,5	67,5	71,5	76,0	80,5	85,5	90,5	96,0	102,0	108,0	114,5	121,5	129,0	136,5
Asteburuko baterako iragarkiak	132,5	140,5	149,0	158,0	167,5	177,5	188,0	199,5	211,5	224,0	237,5	252,0	267,0	283,0
8 iragarkiko publizitatea	371,0	393,5	417,0	442,0	468,5	496,5	526,5	558,0	591,5	627,0	664,5	704,5	747,0	792,0

(*) Tasa bat ezarri ahal izango da adierazitako gutxieneko eta gehiengoaren zenbatekoen artean

XEDAPEN IRAGANKORRA

2026ko urtarriletik abendura arte 9,00 euroko prezioan bazkide egin diren pertsona guztiek 2026ko abendura arte baliatu ahal izango dituzte abantailak eta deskontuak, ordenantza honetan txartel hori duten pertsonentzat ezartzen diren tarifak ordainduta.

2026. urte osorako bazkide diren pertsonak, aurreko ordenantzako tarifarekin, 2026-2027 denboraldirako bazkide izan nahi badute, 2027ko urtarrila eta iraila bitartean bazkide izan ahalko dira, eta ordura arteko abantailak eta deskontuak baliatu ahalko dituzte, 2026. urtean bazkideei 8,00 euroko tarifa murriztua ordainduta.

AZKEN XEDAPENA

Amurrio Antzokian zerbitzuak emateagatiko tasa arautzen duen 7. ordenantza fiskalaren 23. eranskina indarrean jarriko da ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunean, eta indarrean egongo da aldaketa edo baliogabetzea erabakitzen denera arte.

Amurrio, 2026ko abuztuaren 20a

Alkatea

JOSÉ RAMÓN MOLINUEVO LAÑA

